


Tafallako eskualdea

Tafallako eskualdean zenbait herritara joan
gaitezke bisitan, esaterako
Tafallara, Uxuera, Artaxoara...
Era berean, bisita ditzakegu
Erriberriko gaztelua, Pitillasko aintzira...




1. XIV. mendean (hamalaugarren mendean) Erriberriko gaztelua eraikitzen
bukatu zuten eta gaur egun XXI.
mendean (hogeita batgarren
mendean) gaude. Zenbat urte ditu
gazteluak?

- A. 140 urte inguru.
- B. 210 urte inguru.
- C. 700 urte inguru.
- D. 1 400 urte inguru.




3. Begira ezazu irudiko piramideak, eta adierazi X batez baieztapen hauek egia
ala gezurra diren.

	Egia	Gezurra
6 aurpegi ditu.		
5 erpin ditu.		
8 ertz ditu.		
Alboko aurpegiak triangeluak dira.		



- 3.** Begira ezazu Erriberriko gazteluaren irudia. Zein gorputz geometriko ikusten dira irudian?

- A. Konoa, piramidea eta esfera.
- B. Konoa, zilindroa eta esfera.
- C. Konoa, piramidea eta zilindroa.
- D. Konoa, prisma eta esfera.



- 5.** Gazteluaren dorre batetik sarrerako atea ikusten dugu. Oraingo murrizketak direla eta, gaztelura sartu nahi duten pertsonak ilaran egon beharko dute elkarren artean bi metroko tartea utziz. Ilarak guztira 158 metro neurtzen baditu, zenbat persona daude sartzeko zain?

Idatz ezazu eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Eragiketak:


Guztira.....persona daude ilaran.

5. Matematika klasean, irakasleak mahats-mordoen gaineko marrazkiak erakutsi ditu.


Hurrengo marrazki hauen artean, zeinetan da simetria-ardatza lerro gorria?

- A. A marrazkian.
- B. B marrazkian.
- C. C marrazkian.
- D. D marrazkian.


A marrazkia




B marrazkia



C marrazkia



D marrazkia



8. Markosek 140 almendra garrapiñatu dituen poto bat ireki du.

Almendren $\frac{2}{5}$ jan dituzte.

Zenbat almendra jan dituzte?


Idatz ezazu eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.



Eragiketak:

..... almendra jan dituzte.

6. Markosek argazkiak egin dizkie Uxueko etxe batzuei.
Beha ezazu, eskuinaldean, argazkian seinalatutako leihoaren marrazkia.



Leihoak bi kristal berdin ditu.

Kalkula ezazu leihoaren markoaren perimetroa eta hauta ezazu aukera zuzena.

- A. 170 zentimetro baino pixkat gehiago.
 - B. 340 zentimetro baino pixkat gehiago.
 - C. 380 zentimetro baino pixkat gehiago.
 - D. 480 zentimetro baino pixkat gehiago.
7. Markos eta gurasoak Tafallara joan dira.
Begira ezazu irudian Tafallako udaletxeko erlojua.



Idatz ezazu ordu hori Markosen erloju digitalean.



8. Begira ezazu Markosek Tafallako denda bateko horman ikusi duen irudia.



Markosek gorritz idatzitako zenbakiko 12 digituen batuketa egin du. Zenbatu itzazu eta idatzi emaitza.

Batuketaren emaitza.....da.

9. Arratsaldean, Markos eta gurasoak Artaxoara joan dira, bisitan.

2020. urtean Artaxoak zenbat biztanle zituen jakiteko, ondorengo pista hauek jarraitu behar dituzu:

- Lau zifrako zenbaki bat da.
- Zifra guztien batura hamazazpi da.
- Hamarrekoen zifra ehunekoen zifra baino handiagoa da.
- Ehunekoen zifra bikoitia da.




Idatz ezazu laukitxo bakoitzean dagokion zifra.

1			1
---	--	--	---

 biztanle zituen.

10. Uxue, Markosen lehengusina, Pitillasko aintzirara joan da bere familiarekin. Begira ezazu aintzirako animalien gaineko grafikoa.




Osa ezazu taula animalia kopuruarekin.

Ugaztunak	Hegaztiak	Narrastiak	Anfibioak	Intsektuak

11. Pitillasko aintziratik haize-parke bat ikusten da. Hari begira dago Uxue.



Begira itzazu hurrengo irudian haize-sorgailuaren hegala.



Nolakoak dira hiru hegala arteko angeluak?

- A. Hiru angeluak zorrotzak dira.
- B. Bi angelu zorrotz eta angelu zuzen bat.
- C. Bi angelu kamuts eta angelu zuzen bat.
- D. Hiru angeluak kamutsak dira.

Patineteak

Neska-mutil askok patinetea dute eta harekin ateratzen dira jolasera kaleetan, plazetan, pistetan...



13. Begira itzazu patinetearen irudian dauden neurriak. Aitorrek ordenatu ditu neurri horiek, txikienetik handienera.



Aukera ezazu erantzun zuzena.

- A. 48 cm < 94 cm < 380 mm < 760 mm.
- B. 48 cm < 380 mm < 94 cm < 760 mm.
- C. 380 mm < 760 mm < 48 cm < 94 cm.
- D. 380 mm < 48 cm < 760 mm < 94 cm.